

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

8118 *Huts-zuzenketa, honako honena: 3/2017 Legea, ekainaren 27koa, 2017rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrera.*

Hutsak atzeman dira 2017rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren ekainaren 27ko 3/2017 Legean, zeina 2017ko ekainaren 28ko *Estatuko Aldizkari Ofizialean* (153. zk.) argitaratu baitzen; beraz, honen bidez, zuzenketa hauek egiten ditugu:

142. orrialdean, 107. artikuluaen Bat zenbakian, lehenengo paragrafoko lehenengo lerroan, hau dioen lekuan: «Arau hau indarrean jarri eta hurrengo hilabeteko lehenengo egunetik aurrerako ondoreekin,...»; hau esan behar du: «2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoreekin,...».

143. orrialdean, 107. artikuluaen Bi zenbakian, lehenengo paragrafoko lehenengo lerroan, hau dioen lekuan: «Arau hau indarrean jarri eta hurrengo hilabeteko lehenengo egunetik aurrerako ondoreekin,...»; hau esan behar du: «2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoreekin,...».